

# ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 86.a.alea. 2024ko martxoa



**TANIA MARTÍN**  
*Futbol epailea*



Imajinatzen  
duzu Zorrotza  
merkataritzarik  
gabe?

Baduzu eskaintzarik  
onena Zorrotzatik  
irten barik

**ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA**

**EROSI  
AUZOAN!**

[www.comerciantes-zorrotza.com](http://www.comerciantes-zorrotza.com)

# Zorrotzako XXVII.

## ipuin lehiaketa



2024. urtea

Aurkezteko azken eguna: **maiatzak 10**

**Info gehiago eta aurkezteko lekua:** Aek euskaltegia eta Auzoka Komunitate Zentroa

**SARIAK**

**12 URTETIK  
BEHERAKOAK**

**1.SARIA:** 60 euroko kultur bonoa

**2.SARIA:** 30 euroko kultur bonoa

**DBH eta BATXILERGOKO  
IKASLEAK**

**1.SARIA:** 100 euroko kultur bonoa

**2.SARIA:** 40 euroko kultur bonoa

Antolatzailea:



ZORROTZAKO  
EUFJAL BOOKOA

Laguntzaileak:



ZORROTZ MORROTZ  
Zorrotzako herri alabakia



Babeslea:



Bilbao





# Zazpi solairuko eraikin berri batek hartuko du Udaltegi berria 2026ko udatik aurrera

Zortzi milioi euro baino gehiagoko inbertsioa suposatuko du, eta Zorrozgoiti bidean kokatuko da, zahar-egoitzaren ondoan.

## ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak zortzi milioi euro baino gehiago bideratuko ditu barrutiko udaltegi berri bat eraikitzeko. Eraikuntza-proiektua dagoeneko definituta dago, eta lanek, adjudikatu ondoren, hogeita bat hilabete iraungo dutela aurreikusten da. Udaltegi berria Zorrozgoiti-bideko 21. zenbakian kokatuko da, eta egun kiroldegiaren ondoan dagoena ordeztuko du.


Ekipamendu-eraikin horrek auzoari zerbitzua emango dio, eta hainbat udal-saili lotutako gelak izango ditu, hala nola Gizarte Ekintza, Kultura eta/edo Gazteria. Proiektuaren aurkezpenean udal arduradunek nabarmendu zuten, “auzoko kolektibo nagusiek Udalarri helarazitako beharrei erantzuten die” proiektuak: “Zorroztzak eta bertako 11.000 bizilagunek euren beharren tankerako barrutiko udaltegi bat edukiko dute”.

Eraikin berri honek gimnasia-gelak, ikasketa-gelak, ekitaldi eta erakusketa aretoak, eta haurrentzako aisialdirako guneak hartuko ditu besteak beste. Gainera, gaur egun Fray Juan kaleko 35. zenbakian dagoen udal liburutegia hara lekualdatuko da. Lerro hauen ondoko irudian solairu bakoitzean egongo diren zerbitzuak ikus daitezke.

Udal liburutegia	6
Ikasteko gelak, bi tailer-gela	5
KZ Gunea: prestakuntza, erabilera anitzeko gelak	4
Gimnasia-aretoak eta aldagelak	3
Haurgune / Kidegune	2
Gizarte Ekintza Saila	1
Administrazio eremua, Ekitaldi aretoa eta Erakusketa aretoa	0

Egiturari dagokionez, bi bolumen izango ditu eraikinak, beirazko atari batek bereizita. Bolumen nagusia funtzionalena izango da, eta batez ere eraikinaren ekipamendu-beharrei erantzun die. Bigarren bolumenean, beriz, komunikazio-gune bertikalak eta bainugelak egongo dira.

Eraikinak 4.365 metro koadroko azalera erai-  
kia izango du guztira, irisgarria izango da, bai sarbideetan, bai dagozkien geletan, eta akustikoki isolatuta egongo da. Halaber, eraikinak A kalifikazio energetikoa izango du, eta kontsumituko duen energia, neurri handi batean, iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiliz hornituko da, eta estalkian 50 panel fotovoltaiko jarriko dira.







# Bilboko Udalak Burtzeñako zubia estaltzea bultzatuko duela agindu du berriro, baina Barakaldokoarentzat hori ez da “lehentasuna”

AITOR MARIN

2010ean, Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu zioten Burtzeña eta Zorrotza lotzen dituen zubia «estalki partziala» jartzeko, egunero zeharkatzen duten oinezko ugariak eruditik eta haizetik babesteko. 2016an, bi udalek onartu zuten ekimena, baina ezer konkretatu gabe Barakaldoko Udalak bere udalerrinari zegokion zatia Aldundiarena zela argudiatuta. 2020ko azaroan, EH Bilduk eskaera bera eraman zuten bi udaletxeetara berriro. Bilboko Udalak auzotarrekin zubia estaltzeko proiektua aztertuko zuela agindu zuen. Barruti Kontseiluan eztabaidatu zen gaia, eta obra egiteko bi aukera aztertu ziren. Barakaldoko Udalak aldiz, proposamena baztertu zuen, “premia larriagoei erantzun behar zitzaielako”.

EH Bilduk obra bultzatzeko eskatu du berriro urtarrilean bi udaletxeetan. Alderdi subiranistak Udalari leporatu dio marmotaren egunean bizitzea gai honetan, eta auzoko bizilagunen eskariak “olinpikoki baztertua”. Oposizioko gainerako alderdiek ere proposamenaren alde egin zuten: Elkarrekin Podemosek gogora ekarri zuen “PSEko Alfonso Gilek prest zuten” eta inoiz iristen ez den KBus-eko geralekua. PPko bozeramaileak Zorrotza auzoarekiko interes falta leporatu zien EAJri eta PSERI.

Bilboko udal gobernuak zuzenketa bat onartu zuen, eta bertan konpromisoa hartu zuen «eskumenak dituzten administrazioen artean» akordio bat lantzeko, obra berriz bultzatzeko. Asier Abaunza zinegotziak, zubiaren titulartasuna partekatua dela eta Barakaldoko Udalaren konpromisoa ere lortu behar dela

onartu arren, obra egiteko “konpromisoa argia” dutela adierazi zuen, eta Barakaldoko Udalarekin hitz egingo dutela agindu zuen. Hala ere, ematen du Barakaldoko alderdi politikoa berarentzat ez dagoela inolako konpromisorik. Obra eta Zerbitzuen Kudeaketako Barakaldoko zinegotzia den Jon Andoni Uriak osoko bilkuran adierazi zuenez, zubiaren oinezkoen eremua estaltzea “ez da Burtzeñako herritarren aldarrikapena”. Uriaren arabera, “nolanahi ere, zubi hori estaltzea Bilboko bizilagunen eskaera da, gehiago baitira Barakaldoko eskoletara edo metroa hartzera joaten diren zorrotzarrak beste norabidean pasatzen direnak baino”. Hala ere, Uriak berak, proiektuari uko egitea justifikatzen zuen bitartean, gogorarazi zuen Burtzeñako herritarrek Zorrotzako kiroldegia erabil ditzaketela “bi udalerrien arteko lankidetzari esker”.

## Martxoaren 21ean helduko da 23. korrika

ZORROTZ MORROTZ

Martxoaren 21ean, arratsaldeko 20:15ak aldera, hartuko dugu Zorrotzan 23. Korrika. Ia bi mila kilometro egin ostean, Bilbotik Zorrotzara sartuko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Auzoan hainbat lekuko aldaketa egin ostean, Barakaldorako bidean agurtuko dugu.

Auzoko Korrika Batzordeak hainbat ekitaldi eta ekintza prestatu ditu motorrak berotzeko. [www.zorrotzmorrotz.eus](http://www.zorrotzmorrotz.eus) webguneko agendan eta ale honetako iragarrian zehaztasun gehiago topatuko duzu.



## “Toxikoak izateagatik” Nafarroan baztertu diren 3400 tona hondakin urtean jasoko ditu Saderrek Gipuzkoatik

AITOR MARIN

Azken asteetan zenbait hedabidek iragarri dutenez, Gipuzkoak erraustegiko lixibiatu guztiak Sader lantegira bidaliko ditu Nafarroako planta baten itxieraren ondorioz. Informazio horren arabera, Zorrotzako bizilagunek kutsaduragatik eta usain txarrak eragiteagatik baztertzen duten fabrikak 3400 tona hondakin gehiago jasoko ditu urtean, Nafarroan jasotzen zituen zentroa “bidalketa horiekin lotutako irregularitasuengatik” itxi ondoren. Zehazki, hondakin horiek “toxikoak” izan daitezkeela aurpegiaratu die Nafarroako Gobernuak Gipuzkoako arduradunei.

Aipatu behar da Saderrek 2022ko abuztutik egunero jasotzen duela zisterna-kamioi bat lixibiatuekin Zubietako (Gipuzkoa) erraustegitik, enpresak berak ziurtatu duen bezala. Sader “krisi honen konponbidearen parte” dela dio, eta iristen den guztia “Eusko Jaur-laritzak emandako ingurumen-baimenaren arabera” tratatzeko legezko baimen guztiak dituela berretsi du.

Hondakina toxikoa izan daitezkeen ala ez galdetuta, Sader enpresak ez du ez baieztatu, ezta gezurtatu ere, eta Gipuzkoako erraustegira bideratzen du ardura, “hondakina katalogatzeko erantzukizuna ez delako jasotzen duenarena, baizik eta ekoizten duenarena”. Gaur egun, hondakinen kodeak faltsutzeagatik ikertzen ari dira Zubietako erraustegia.

### Ausarkeria eta erantzukizun falta

Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak argitaratutako komunikatu batean, gogorarazi du Zorrotzako, Elorrietako eta San Inazioko bizilagunen kezak ohikoak direla kutsagarriak izan daitezkeen emisioengatik. “Ausarkeria eta erantzukizun falta” leporatzen die Federazioak arduradun politikoei “aipatutako baldintzetan dagoen hiriko zonalde batean hondakin gehiago mugarik gabe jasotzea onartzeagatik”.

Ondorengo ohar baten bidez, isuriak jasaten dituzten auzoetako elkarreek premiazko neurri eraginkorrak hartzeko eskatu diote Bilboko Udalari, “isuri barreiatuak eta iragazi gabeak” bukatzeko, eta hirigunean hondakin arriskutsuak tratatzen dituen fabrika horren lekualdaketa aurrerapenik ez dagoela salatu dute berriro. Era berean, Elkarreek gogorarazi dute Zorrotzako airearen kalitatea neurtzen zuen udal neurgailua 2023ko apiriletik matxuratuta dagoela eta Udalari “ahalik eta lasterren” konpontzea eskatu zioten. Badirudi hau konponduko dela, Sader-Profersaren isurketak kontrolatuko dituzten hiru neurgailu jartzea onartu baita handik egun gutxitara, otsaileko osoko bilkuran.

Halaber, hondakin arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailu astuneko espazio publiko etengabe okupatzen dutela eta kamioi horien zirkulazioa eta aparkalekua arautzen dituen udal-ordenantzarik ez dagoela salatu dute auzo-elkarreek.

## Zorrotzako kaia itsasontzi handietarako Bilboko portu bihurtuko da etorkizunean

ZORROTZ MORROTZ

Horrela aurreratu zuen Asier Abaunzak Hiri Plangintzako zinegotziak Zorrotza lurmuturrerako aurkeztutako proposamenei buruzko hitzaldi informatiboan. Etorkizunean, Zorrotzaurre Olabeaga eta Zorrotza lotuko dituzten bi zubien altuera txikia dela eta, ezinezkoa da ontzi handiek azpitik nabigatzea. Beraz, gaur egun Euskalduna zubiaren ondoan dagoen Itsasmuseumaren ingurura heltzen diren itsasontzi handiak edo belaontziak Zorrotzaraino baino ezingo lirerateke iritsi, eta beraz, bertan kokatuko da portua.

Kaiaren ezaugarriak ezin hobeak dira. Sakonera egokia izateaz gain, atrakatzeko-lerroa ia 800 metro linealekoa da. Gainera, 2019az geroztik, Bilboko Udala da kaiaren jabea,

Portu Agintaritzari lur guztiak erosi ondoren. Oztopo nagusia da lursail horiek, titulartasun publikokoak izan arren, gaur egun Sader Profersaren industria-jarduerarako erabiltzen direla, eta horiek lekuz aldatu edo desagertu gabe, Abaunzak agindutako jarduerak ezin direla egin.

Zorrotzako Auzo Elkarteak positibotzat jo du kaiari erabilera ematea, eta planaren berri izatean, Itsasmuseum Zorrotzara lekualdatzea proposatu zuen, Molinos Vascos eraikina aprobetxatuta. Aukera horri buruz galdetuta, Abaunzak ez zuen museoa lekualdatzeko konpromisorik hartu, erabaki hori “Udalaren esku ez dagoelako”, Udala museorekin fundazioaren patronatuko kide izan arren “patronatuan beste kide batzuk ere badirelako”.

## Udalak Zorrotzako Murrutza antolatzeko lehiaketan parte hartu duten proposamenak erakutsi ditu

ZORROTZ MORROTZ

Proposamenen panelak Zorrotzako Barrutiko Udaltegian ikusi ahal izan ziren otsailean zehar. Bizilagunek eta nahi izan zuen edonork bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten 320.000 metro koadro baino gehiagoko ingurunerako proposatutako arkitektura- eta paisaia-aukerak, taldeek lehiaketara aurkeztu zituztenak.

Udalak apirilean deitu zuen lehiaketa eta epaia urrian jakinarazi zen. Bilboko IDOM ingeniari-taldea bulegoko “LotURA” izendatu zen irabazle. Gainera, ‘Landa Bizia’ (KREAN) eta ‘Zorrotza Berrikuntza Barrutia’ (Jornet/Llop/Pastor eta GC Arquitectos) izeneko proposamenak izan ziren, irabazlearen atzetik eta hurrenkera horretan, epaimahaiak gehien baloratu dituenak.

cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazidurak

Kanapeak



Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74

ESKAINITZA  
PROGRESIBOETAN  
ARMAZOIA +  
KRISTALAK <sup>GOI-</sup><sub>GAMAKOAK</sub>  
**265€**

Sustapena indarrean +- 4,00 esferako eta  
-2,00 zilindroko arto graduazioetarako  
RPS: 213/18

ibaretaLuxury  
O P T I C A

RISKO  
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefona: 94 441 64 86





## “Amak ez zituen hil aurretiko sufrimenduzko ordu horiek merezi”

Hildako emakume baten familia Zorrotz Morrotzekin harremanetan jarri da ambulanzia medikalizatu berandu iritsi zela eta jasotako tratu “arduragabea” salatzeko. Gainera, kexa bana aurkeztu dute Osakidetzan eta Arartekoan.

AITOR MARIN

Duela gutxi hil zen 92 urteko Jesusa auzokidearen familia gure aldizkariarekin harremanetan jarri da ambulanzia medikalizatu bateko langileengandik jasotako “tratu arduragabea” salatzeko. Gainera, laguntza eskatu zuten unetik, ordu eta laurden igaro zen ambulanzia amaren etxera heldu zen arte. Jesusak min handiak zituen sabelean, eta ordu batzuk geroago hil zen Basurtuko ospitalean. Familiak onartzen du ambulanzia azkar iritsi izan balitz ere, amaiera berdina izango zela, baina hala ere alabetako batek oraindik txundituta salatzen du amak ez zituela merezi sufrimenduzko ordu horiek guztiak bere bizitzako azken uneetan, eta sufrimendu hura “saihestu zitekeela”.

Jesusaren familiak Osakidetzan eta Arartekoan kexa bana aurkeztu du jasotako tratuagatik. Alabek bizitakoa salatu nahi dute, berriro errepika ez dadin: “Horregatik, eta nire amak, oso borrokalaria eta bere eskubideen eta osasun publikoaren defendatzailea sutsua zenak, hala nahiko zukeelako”.

Jesusaren familiak emandako testigantza arabera, gertakariak urtarrilaren 30ean izan ziren. Eguerdik aldera, oroimen klase baten ondoren etxera iritsi bezain laster, Jesusak Zorrotzako bizilaguna ere baden alaba bati deitu zion, min handiak zituela ohartarazteko.

“Ahizpari deitu nion eta biok joan ginen korrika etxera, ama oso gaizki zegoelako”. Ataritik, haren oinazeko garrasiak entzuten ziren.

Ordurako, Jesusak Beti On telelaguntza-zerbitzura deitu zuen. Berehala, Jesusaren bi alabek larrialdietara ere deitu zuten ambulanzia bat eskatzeko: “Duela urte batzuk aorta-aneurisma bat jasan zuen 92 urteko emakume bat zela azaldu nien, eta horrekin zerikusia izan zezakeela”. Behin baino gehiagotan, berriro deitu zuen 112 telefonora, ama laguntzarik gabe hilko zela uste zuelako. Larrialdi zerbitzutik, bidean zeudela erantzun zioten guztietan: “Ezin nuen ulertu nola Gurutzetako eta Basurtuko ospitaleetatik kilometro batera bizi izanda, hainbeste denbora behar zen hona heltzeko”.

Etsita, Zorrotzako osasun-zentrora ere deitu zuten. Handik hamar minutura, familiako medikua heldu zenean, ambulantiako langileei haietako medikua nor zen galdetu zion: “Ez dago, ez da derrigorrezkoa medikurik egotea bizi-laguntzako ambulanzietan”, azaldu zuen ambulantiako teknikariak. Ordurako, bigarren laguntza-ambulanzia bat iritsia zen, eta bertako langileak “aurreko ambulantiako langileekin solasaldian zeuden”. Horrek areagotu egin zituen Jesusaren alaben etsipena eta haserrea: “Erakutsi zuten gizatasun eta enpatia eskasak ambulanzia berandu heltzeak baino

## **Ulertezina da Basurtu eta Gurutzetako alboan egonda, anbulantzia hain berandu iritsi izana**

askoz gehiago mindu gintuen”. Suminduta, bere ama ospitalera behingoz eraman zezatela eskatu zuen. Urduri ez egoteko, zer egin behar zen bazekitela izan zen anbulantziako langileen erantzuna.

Hasieran bertaratutako langileek, bertan ez zegoen mediku batek ikusi behar zuen elektrokardiograma bat egin zioten Jesusari, erabaki bat hartzeko. Baina ordurako, han zegoen familia-medikua: “Hemen zaudenez, irakur ezazu zuk”, esan zioten doktoareari. Hala egin, eta “amak besikulan ebakuntza egina zuela entzun ondoren, berehala ospitaleratzeko agindu zuen Zorrotzako Osasun Zentroko medikuak. Ordurako, Jesusaren egoera kritikoa zen: “Une hartatik aurrera bakarrik hasi ziren mugitzen”, salatu dute senideek.

Anbulantziako langileak Jesusaren alabekin izandako jarrera justifikatzen saiatu ziren. Os-

pitalean gaixoa utzi ondoren, anbulantziako teknikaria Jesusarekin batera ospitalera joandako alabarengana hurbildu zen, eta gertatutakoa “anekdota batean” uzteko eskatu zion, “denak oso urduri baitzeuden”. Jesusaren familiak ezin zuen sinetsi: “Nire ama minez hiltzen ari zen, behar bezala artatua izan gabe”.

Basurtuko ospitaleko langileentzat, aldiz, esker oneko hitzak baino ez ditu Jesusaren familiak: “Egin zioten eskanerraren ondoren esan ziguten ez zegoela zer eginik eta sedatu egingo zutela. Gela izagurri handi bat utzi ziguten familia osoak agur esan ziezaion, eta duintasun handiz tratatu gintuzten”. Jesusa bikain egon zen azken segundora arte, eta planak xaloki egiten ere aritu zen, harik eta gauean lo hartu eta hurrengo goizean hil zen arte.

Jesusaren alabek ulertzen dute anbulantzie-tako langileen haserrea beren lan-baldintzengatik, eta haien aldarrikapenak babesten dituzte: “Badakit oso erreta daudela, hala esan zigutelako, baina gertatu zitzaiguna ezin zaio beste inori gertatu. Langile gehiago behar badira eta haien lan-baldintzak hobetu behar badira, konpondu behar da. Arduradunek aitortu behar dute Osakidetzan zerbait huts egiten ari dela.”

## **Parking berri bat egokituko da Garbigune zaharreko eremuan**

ZORROTZ MORROTZ

Zorrozgoiti bidea eraberritzeko bigarren fasea amaitu eta Adifen eskakizunak zuzendu ondoren, laster hasiko da eremu hori birmoldatzeko hirugarren eta azken fasea. Espaloi berri bat eraikitzeaz gain, 32 plazako aparkaleku berri bat egokituko da Garbigune zaharra zegoen lekuan.



# // Hemengo ordena gustuko dut. Denak du bere unea eta lekua //

## HAI VAN BUI THI

**Jaiotokia:** Hanoi (Vietnam)

**Noiztik:** 2010etik.

**Adina:** 36 urte.

**Labidea:** Inportazio enpresa bateko langilea.

Unibertsitateko ikasketak bukatuta, Bilbora heldu zen Hai Van gaztelera ikasteko. Bere senarra Alex zorrotzara ezagutu zuen orduan, eta familia sortu dute auzoan. Bilbo oso gustuko badu ere, orain Zorrotza nahiago duela dio, "denetarik eskura" dugu eta.



**TESTUA:** AINARA GARCÍA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

### Nolatan edo zergatik etorri zinen eta geratu zara Zorrotzan bizitzen?

Vietnamen unibertsitate ikasketak bukatu ondoren, turismo konpainia batean lan egiten nuen. Nagusiak, nahiz eta nahitaezkoa ez izan, gaztelera ezagutzea gomendatu zidan eta hizkuntza ikasteko asmoz hona etorri nintzen. Bilbon nengoela institutu batean hiru hilabeteko lana lortu nuen, eta bertan Alex, nire senarra, ezagutu nuen. 2014an ezkondu ginenean, eta gero seme alabak etorri ziren... Bilbora heltzean, erdialdean bizi nintzen. Gerorago, nire senarra Zorrotzakoa izanda, berekin etorri nintzen bizitzera.

### Gogorra egin zitzaizun gure lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Europako eta Espainiako hiri ezberdinetan ibilita, Bilbo gehien gustatzen zaidana dela esango nuke. Horregatik ez zait moldatzea hainbeste kostatu. Hiri handiak oso hotzak dira... Bilboko jendeak Vietnamekoarekin antza haundia dauka: jatorra, goxoa eta atsegina da. Zorrotzan ere hori sentitzen dut. Hasieran dena oso berria iruditzen zitzaidan. Inor ezagutzen ez nuen arren, denbora gutxiarik gustura sentitu naiz, eta gaur egun ere

oso pozik jarraitzen dut. Gainera izeko bat Sestaon bizi da, eta familia pixka bat hurbil gotea eskertzekoa da.

### Zer da hona heltzean gehien harritu zintuena?

Hemengo ordena. Nire herrian ez dago, eta asko gustatzen zait. Denak bere momentua eta lekua dauka. Edozein gauzatarako ilara sortzeko ohitura eta gaitasuna daukazue. Bestalde, eguraldia. Haizearen indarra batez ere: zakarregia iruditzen zait. Orain barregarria deritot, baina hasieran beldurra nion. Haizea sentitu nuen lehenengo aldia, nire senarrari mezua bidali nion beldurtuta haizeak bultzatzen ninduelako... Kristoren barreak egin zituen berak. Lasai egoteko esan arren, beldurrak nengoen inoiz ez nuelako horrelakorik sentitu.

### Oso ezberdina da auzoko bizimodua zure jatorrizkoarekin alderatuta?

Nahiko ezberdina da. Lagunekin kafea hartzeko, edo kalean jateko... Janaria adibidez: nire herrian sukaldatzeko era, lurralde ezberdinetakoak, aurkezpenak edo jateko modu oso ezberdinak eta oso ugariak daude. Hemen baino gehiago. Bestalde, hemen



**“ Bilboko jendea  
Vietnamekoaren antza handia  
dauka: jatorra, gozoa eta  
atsegina da. Zorrotzan ere hori  
sentitu dut. Oso giro polita dago  
eta jende pila ezagutu dut eta  
aspertzeko tarterik ez daukat**



edari alkoholdun eskaintza oso ugaria da. Han edari alkoholdun ez gain, beste hamaika edari mota badaude... Gainera kalera irten eta denetarik topa dezakezu edozein lekutan eta edozein ordutan, agian hemen ez bezala. Nire jatorrizko gastronomia faltan dut, hementxo janaria oso gustukoa daukadala esan behar dudan arren. Egia esan, honetan ez daukat inolako arazorik, guztiz kontrakoa baizik.

### **Zein da zure lanbidea?**

Esportazio eta inportazio enpresa batean egiten dut lan. Hala ere, lan ezberdinak izan ditut, institutuan, taberna batean...

### **Zelan moldatzen zara euskaraz?**

Bilbora heldu arte ez nekien ezta existitzen zenik ere... Estatu batean hizkuntza ezberdinak egotea oso bitxia iruditu zitzaidan. Egia da Vietnamen mendi barneko gune txiki batean dialekto ezberdin bat dagoela, baina oro har hizkuntza bakarra dagoela esan daiteke.

Euskaraz entzuten dudanean adi egoten naiz. Ez dut ulertzen baina bere soinua asko gustatzen zait. Berez, nire seme-alaben izenak euskaldunak dira (Haizea eta Ekaitz). Bere garaian ikasteko asmoa neukan. Ezkondu ondoren tartea izango nuela uste nuen, baina lana eta seme-alabekin denbora falta zait. Zerbait ikasi nahi dudanean oso serio jartzen naiz eta beharrezko denbora eskaini nahi diot... Seme-alabek euskaraz ikasten

dute eta haiekin praktikatu ahal izango nuke, baina nirekin vietnameraz hitz egiten dute. Agian urte batzuk barru animatuko naiz...

### **Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?**


Bilboko erdialdea asko gustatzen zait baina gaur egun Zorrotza nahiago dut, denetarik daukagu eskura, di-da batean erdialdera hurbildu gaitzeko edo inguruko herrietara joan, eta bi ospitale artean gaude, bietatik oso hurbil eta horri oso garrantzitsua deritot.

Bestalde, oso giro polita dago hemen, jendea jatorra da... Seme-alabekin ere gauza eta jende pila ezagutzeko aukera daukat eta aspertzeko tarterik ez. Nahiz eta inolako taldean parte hartu ez, ekintzak edo jaiak dandean bertan egotea eta asiatarren topikoa ri hutsik ez egiteko, argazkiak ateratzea gustatzen zait, kar, kar!.

### **Zure herrira inoiz berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?**

Bizitzera, oraingoz ez. Oporretan eta ahal dugun guztietan joaten gara, Nire senarrak ez luke arazorik izango, beragatik balitz 3 urterik behin herrialdez aldatu eta munduan zehar biziko ginateke... Vietnamen urte batzuk igarotzea gustatuko litzaidake baina gaur egun, lanagatik eta ume txikiak izanda, haien ikasketak eta bizitza ez mozteko, ezinezkoa da. Gainera, izurritearen ostean, bidaiatzea gero eta zailagoa izan da azken urte hauetan.

# Auzoko kulturak pil-pilean



**Bigarrenez, Sukalde Zikloa antolatu du Auzoka Komunitate Zentroak, sekulako arrakastarekin. Errezeta borobila: jatorri ezberdineko auzotarrak beraien herrietako jakiak jendaurrean prestatzen eta elkarrekin dastatzen.**

**TESTUA:** IGOR GUTIÉRREZ | **ARGAZKIAK:** AUZOKA KOMUNIT. ZENTROA

Jakina da sukaldeak duen erakartzeko gaitasuna eta kultura ezberdinen artean zubiak erakitzeko duen ahalmena. Gainera, sukaldaria zure auzoko bizilaguna denean, errezeta borobila da.

Horixe bera irudikatu zuten Auzoka Komunitate Zentroko hezitzaileek iaz, Sukalde Zikloa abiatzea bururatu zitzaizenean. “Auzokan egiten den hezkuntza-indartze programan jatorri ezberdinetako gazteak ditugu, eta pentsatu genuen ederra litzatekeela beraien familiak elkar ezagutzea eta, aldi berean, auzoan bizi diren kulturak erakustea”, diosku Mikelek. Hala, familia batzuk beraien herrietako jakiak jendaurrean prestatzera animatu zituzten eta horrela lehen zikloko hiru saioak antolatu zituzten, Maroko, Argentina eta Venezuelako sukaldaritzan oinarrituta. Guztira, 60 partaide izan ziren iaz.

Saioen formatua showcooking tankerakoa da. Sukaldariek zuzenean prestatzen dituzte jakiak, ikusleei azalpenak ematen dizkieten bitartean. Batzuetan, publikoak ere parte hartzen du, sukaldariei lagunduz. Amaieran, platerak elkarrekin dastatzen dituzte. Elkartrukea eta kulturarteko harremana berez

sortzen da, bultzatu beharrik gabe. Azken finean, janariaren inguruan denok dugu zer galdetu, zer aipatu. Parte hartzea doakoa da, baina aurrez izena eman behar da, taldea handiegia izan ez dadin. Saioak ostiraletan egin dira, Auzokan bertan.

## Senegal, Euskal Herria eta Nikaragua

Aurtengo zikloari Senegalek eman zion hasiera, Aramek eta Umu sukaldarien eskutik. Erakutsitako errezeta Thiebou Dyenn izan zen, Senegaleko plater nazionaltzat hartzen dena eta, hitzez hitz, arroza eta arraina esan nahi duena. Oso ale txikiko arroza erabiltzeaz gain, gurean ikusten ez diren bestelako osagai batzuk ditu, hala nola, batata, juka, tamarindoa ala hibiskoa. Alde batetik, arraina frijitzen da, eta bestetik, barazkiz osaturiko olio errea egiten da. Arroza erdi egosita gehitzen da olio erre horretara eta, eginda dagoenean, platerera ateratzen da, barazkiak eta arraina gainean jarrita. Thiebou Dyenna laguntzeko, bissap edaria ere prestatu zuten Aramek eta Umuk, hibiskuz egina. Partaideek janaria usaintsu bezain zapoetsu deskribatu zuten.

Bigarren saioan, Euskal Herriak hartu zuen lekukoa, Yoli eta Edurneren eskutik. Txibiak tintan eta makailua piperradarekin prestatu



**Sukaldariak Auzokan egiten den hezkuntza-indartze programako gazteen senideak dira**



**Elkartrukea eta kulturarteko harremana berez sortzen da, bultzatu beharrik gabe**

zituzten. Bien bitartean, publikoa pintxoak egiten jarri zuten, makailu pikantea, gildak eta kilkerak, hain zuzen. Azken hori askori ezezaguna suertatu zitzaion, akaso gaur egun ez delako hain ohikoa tabernetan ikustea.

Zikloa ixteko, Nikaraguako sukaldearen saioa izan zen, Paola eta Gloriaren eskutik. Vigorones, tajadas eta repochetas izan ziren prestatuturiko platerak. Bigoroiak azaburu entsaladak dira, juka eta txintxortekin, dena platano-orri

baten gainean zerbitzatuta. Tajadak, berriz, platano xerra frijituak dira, haragia, gazta eta abarrekin. Eta repotxetak arto-tortillak dira, gazta eta entsalada gainean daramatzatenak. Partaideak poz-pozik atera ziren, merienda koloretsuz gaztatuta.

Beste behin ere, aurtengo Sukalde Zikloaren arrakasta borobila izan da. Saio bakoitzean hoguei bat partaide bildu dira. Hurrengora arte!



**Vía gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**

**ROCKET TAVERN**



Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

**SATZ**  
OKINDEGIAK

**Zorrotzako labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34  
Tfno. 94 441 09 71  
Zorrotza - 48013 BILBO



**TANIA MARTÍN:** Futbol epailea

## **“Pertsona moduan hazteko izugarri lagundu dit arbitratzeak”**

Duela zazpi urte lesio baten ostean jokatzeko gogoia apur bat galduta baina “futbolaren harra ezin kenduz”, arbitrajean sartu zen Tania Martín nolakoa zen probatzera. Egun, 27 urteko gazte hau 2. RFEF mailako epaile nagusia da, eta horrek behartu du Zorrotzako Futbol Sala taldea uztera, ezin baititu biak uztartu, eta “arbitrajea futbola bera baina erakargarriagoa” egiten zaiolako orain.

## Arbitrajearen aritzeaz gain, lehenago jokalaria ere izan zara? Zerk bultzatu zintuen baloia txilibituagatik aldatzera?

Txikitan eskolan hasi nintzen futbolean. Deustun eta Pauldarraken ere egona naiz, eta azken urteotan Zorrotzako Futbol Sala taldean egon naiz. Pasa den urtean, taldea utzi behar izan nuen arbitrajeak hala behartuta. Emakumezkoen kasuan, 2. RFEF mailara heltzen bazara, ezin dira uztartu arbitrajea eta futbol taldean aritzea. Urte askotan egon naiz biak uztartzen. 18 urterekin edo, Federazioaren iragarki bat ikusi nuen, arbitrajearen sartzera animatzen zuena. Ba probatuko dut! Orain arte. Heldu zen bata edo bestearen artean erabakitzeke unea, eta orain arbitrajea futbola baino erakargarriagoa egiten zait. Honetan egoteko aukera, 2. Edo 1. RFEF mailan egoteko unea, orain da, ala ez da. Aurrerago, ez dut aukera hau izango.

## Noiz hasi zinen zehazki arbitratzen eta zein mailatan aritzen zara epaile gaur egun?

Duela zazpi urte hasi nintzen, eta bigarren denboraldia dut epaile nagusi lanetan aurten emakumezkoen 2. RFEF mailan, Liga Iberdrola eta Bigarren Mailaren azpitik. 2. RFEF mailako epaile nagusia izanda, 1. RFEF mailako partidetan lehenengo arbitro laguntzailea ere izan naiteke. Horrek suposatzen du lineako epailea naizela partidatan, eta arbitro nagusia lesionatzen bada, bere ordeze arituko naizela. Kopako txapelketan ere aritu naiz Albaceten, bertako taldea Rayo Vallecanoren aurka epaitzen.

## Nola iritsi zitzaizun arbitrajearen munduan sartzeko ideia eta nola izan zen lortu arteko prozesua?

Hasi nintzenean, lesio baten ostean jolasteko gogo apur bat galdu nuen, baina futbolearen aritzeko harra bazegoen oraindik, eta probatzeko hasi nintzen, ea gogokoa nuen. Hasiera batean ez neukan batere gogorik mailetan gora egiteko... Kadete eta juvenil mailan eroso nengoen. Baina pixkanaka-pixkanaka, goiko mailetan laguntzaile gisa hainbat partidatan aritu ostean, aurrera egiteko gogo sartu zitzaidan, eta azterketak prestatzen hasi nintzen. Prestaketa ez da batere eroso. Hainbat azterketa teoriko eta -urtero hirutan- azterketa fisikoak gainditu behar dira.



Argazkia: Athletic All/iron Feminino

**“Mailetan gora egitea oso zaila da. Hala ere, nire helburu bakarra partida bakoitzean disfrutzea da**

## Arbitrajeaz gain, zein da zure lanbidea? Zaila da futbol epailea eta zure lana uztartzea?

Adingabe atzerritarren zentro batean gizarte-integratzaile lanak egiten ditut, eta lana arbitrajearekin uztartzen dut. Batzuetan zaila da, baina nahiko ondo moldatu naiz lankideekin ordutegi arazoak izan ditudanean, batez ere asteburuetakota partidengatik.

## Zein da zure helmuga edo helburua lanbide honetan? Noraino heldu nahiko zenuke?

Helburu bakarra disfrutzea da. Duela urte batzuk bai ipini nion neure buruari egun nagoen mailara heltzeko erronka... Orain, hori beteta, partida bakoitzean ondo pasatzea da nire helburu bakarra. Oso zaila da gorago joatea... Aukera balitz, ederto, ez nuke ukatuko, baina ez da inolaz ere nire helburua.





Argazkia: RCD Espanyol



Argazkia: Athletic All Iron Femenino



Argazkia: Fundación Albacete Femenino



Argazkia: Santi Fernández



Argazkia: Athletic All Iron Femenino

## Zure ustez, zer ezaugarri behar dira lanbide honetan gora egiteko?

Diziplina, gogo eta konpromiso handia batez ere, eta zorte apur bat ere bai. EAEn jende ako gaude arbitrajea, eta guztiak ezin gara goi mailetan egon.

## Arbitro profesionalen batengan arreta berezia duzu?

Lehenengo mailako gizonetzkoen artean ez daukat erreferente handirik. Gustuko ditudan batzuk badaude, eta hainbat gauzatan bai jartzen dut arreta. Baina batez ere, erreferenterik izatekotan, emakumezkoen lehenengo mailan dauden Arantxa Gallastegi, Olatz Rivera, eta Bea Arregui izango lirateke. Horiek dira erreferenteak, eta baita lagunak ere. Aurten adibidez, zazpi denboraldi lehenengo mailan eman dituen Bearekin partida askotara joan naiz, eta ikasteko aukera izugarria da berarekin egotea.

## Gaur egun, emakumezkoen futbolaren oihartzuna gizonetxoengandik oso urrun dago... Laster aldatzeko aukerarik al dago?

Laster ez, baina aldatuko delakoan nago. Bederatzi urte eman ditut arbitrajea, eta nabaritu dut gero eta profesionalizatuago dagoela guztia. Ez da arraroa orain talde batzuetan

medikua, erizaina eta prestatzaile fisikoa ikustea. Duela urte batzuk ez zen horrelakorik izaten. Eta hemendik aurrera, jauzi hori nabarmenagoa izango da nire ustez. Berdin gertatuko da arbitroekin. Ni hasi nintzanean Bizkaian ginen mila arbitro ingurutik, zortzi emakume baino ez ginen. Orain gero eta gehiago gara, eta pausoak ematen ari dira. Duela urte batzuk, emakumezkoen futboleant, epaileak hirugarren mailan ziharduten gizonetxoak ziren. Gaur egun, Iberdrola ligak bere epaile propioak ditu, emakumezkoak.

## Inoiz sentitu zara gutxietsia emakume izateagatik? Futbolaren mundua gizartea bera baino matxistagoa al da?

Futboleant eta arbitrajeant, gizartean bezala, denetarik dago. Oro har, esango nuke ez naizela inoiz gutxietsia sentitu emakume izateagatik. Orain dela bospasei urte infantil mailako partida bateant, komentario bat entzun nuen harmailetatik, harrikoa egitera bidaltzen ninduen. Klub bateko emakume batek egin zuen... Baina alderantzizko jarreant ere izan ditut: orain dela pare bat urte Twitterren birala egin zen txio bat ipini nuen juvenil mailako partida bat hasi baino hamar minutu lehenago aita bati “neska batek arbitratzen du, ziur gaizki egingo duela” entzun



## // Partidetan txilibitua uniformearen kolore berekoa hartzen dut beti //

ZM | 17

**Zein izan da orain arte epaile lanetan gogoratzen duzun unerik onena?**

Ezberdindu beharko nuke zelaiaren barruan eta hortik kanpo gertatutakoak. Aurtengo Athletic eta Real Sociedaden arteko Euskal Herria Kopako finala epaitu nuen Lezaman eta izugarri disfrutatu nuen partida horretan. 1. RFEFeko mailako partidak ere izugarri disfrutatu ditut. Futbol 11ko lehenengo partida ere gogoan dut. Ez zen inolako partida berezirik, baina jauzia izan zen niretzat, eta oroitzen kuttuna da niretzat. Eta bestetik, arbitrajeak eman dizkidan lagunak eta esperientziak aipatu behar ditut. Egindako harremanak eta bizipenak askoz gehiago oroituko ditut partida hartan zenbat txartel atera nituen edo azken emaitza zein izan zen baino.

**Ba al duzu maniarik edo ohiturarik partiduetan?**

Bai. Txilibituak beti-beti kamisetaren kolore berekoa izan behar du. Bai ala bai. Eta zelaira atera baino lehen, musika jartzen dut, eta noizean-behin aldatzen joan den arren, abesti berezi konkretu batek izan behar du azkena derrigorrez.



nionean. Ba, txio horren harira, Durangoko neska batek erantzun zidan aurreko asteetan neska batek epaitu zuela bere semearen partida bat eta oso ondo egin zuela. Bere perfilean kuxkuxeatu nuen jakiteko ea nor zen epaile hura... eta ni neu nintzen.

**Baina oro har, errespetua falta zaio arbitroaren figurari, ezta? Irain asko jasan behar izan dituzu?**

Bai, baina gero eta gutxiago. Batez ere, goi mailetan. Horietan gure lana askoz gehiago ulertu eta errespetatzen da, eta oro har, nik ez dut irain askorik jasan futbol zelaietan.

**Futbol-epaile lanetan gero eta emakume gehiago ari zaretela aipatu duzu lehen. Zer esango zenieke arbitrajea hasten ari diren neska horiei gutziet?**

Aurrera egiteko bitan pentsatu gabe. Aukera izugarria da, hasieran agian zaila izan daitekeen arren. Hasi nintzenetik asko ikasi dut, baina ez bakarrik epaile moduan; pertsona moduan hazteko izugarri lagundu dit arbitratzeak. Hemen beste arlo askotan ikasi ezin diren gauza pilo bat ikasten dira. Adibidez, emozioak kudeatzea oso garrantzitsua da futboleko epaitzeko, eta hori hemen bat-batean ikasten da.

# ehbildu

## ERABAKI\* ALDAKETA



## ASKABIDE kultur elkartea zorrotza



# AGENDA

## Martxoak 8, ostirala

20:30. Gaztetxean.

**Kontzertua: DAKIDARRIA + SUTAN**

Sarrera: 15 / 18 €

## Martxoak 12, ostirala

18:00 Udaltegian.

**IKUSI ETA IKASI**

*familian euskaraz gozatu:*

**Lagunartean: Mosaikoak (9-11 urte)**

## Martxoak 29, ostirala

**ordua zehazteke.** Gaztetxean.

**Kontzertua: IGNITE**

Sarrera: 20 / 25 €

## Apirilak 13, larunbata

20:30. Gaztetxean.

**Kontzertua:**

**SUICIDAL ANGELS + ENDGAME**

Sarrera: 18 / 23 €

## Apirilak 20, larunbata

20:00. Gaztetxean.

**Kontzertua:**

**VOMITO + ANTI-REGIMEN**

Sarrera: 10 €

## Apirilak 25, osteguna

18:00 Udaltegian.

**IKUSI ETA IKASI**

*familian euskaraz gozatu:*

**Altoan: Eskujuolasak (2-3 urte)**

19:00 Udaltegian.

**BILBOKO ZIRKUITUA:**

**ANTZERKIA:**

**HEYOKA CLOWN: "Las Franciskas"**

## Maiatzak 3, ostirala

18:00 Udaltegian.

**IKUSI ETA IKASI**

*familian euskaraz gozatu:*

**Familian tailerrak:**

**Mozorro mitologikoak (2-3 urte)**


Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, [zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus) helbidera idatzi.



## Argialdiak

Miriam Luki.

Susa. 2023. 104 orrialde.



Ogiaren usaina eta izuarena. Hitzen pisua eta iraganarena. Nola eraman guztiak gorputz bakarrean? Zer esan merezi izan ote duen jakin nahi duenari eta zer prestatu azkena izango den afari handirako? Noraino garen ahizpa eta zenbat gehiago iraun dezakeen ihartzen utzitako laguntasunak; zenbat trago izango ziren denera, zenbat airean kiskalitako hegazkinak.

Gisa horretako alderak dabilta Miriam Lukiren estreinako ipuin liburuko protagonisten buruetan. Maitale, lagun, senide zein klase arteko harremanen ertzak behatu ditu idazleak bederatziz kontakizun hauetan, nola, isiltzearen isiltzez, zerbait pitzatzen den azkenean eta tartetik argi-zirrinta bat sartu, joan edo geratu, ezinbestean erabaki behar ez dela ohartuz.



## GORKA URBIZU "Hasiera bat"

(Txorimalo Records) 2023



Lau urte baino gehiago igaro dira Berri Txarrak-ek azkenengo kontzertua eman zuenetik. Tarte horretan Gorka Urbizu taldearen alma materrak musikaren mundura lotuta jarraitu du, baina beste ikuspegi batetik. La M.O.D.A. edota Leihotikan

taldeen azken diskoetan laguntzaile gisa aritu da proiektuetako partaide bat gehiago izango balitz bezala, izan ere, ekoizle hitza potoloegia iruditzen zaio Lekunberriko musikariari.

Eta bat batean, ezustean eta aurrerapen abestirik gabe (gauza arraroa 2024 urtean, baina erabaki ausarta dudarik gabe) 10 kantuz osaturiko bakarkako lehen lana oparitu digu Urbizuk, "Hasiera bat" izenburupean. Iazko udan Lleidako Gissona herrian dagoen Teatre de Ca L'Eril en grabatua (1904 inguruko antzoki zahar bat) modu analogikoan 8 pistako batean. Grabatzeko modu berezi hau bat-batekotasuna eskatzen du, gaztelerazko "menos es más" filosofiari jarraiki. Musika modu azkar batean kontsumitzeko ohituraren kontra, denbora hartu eta patxadaz entzuteko gomendioa ematen digu artista nafarrak, hauxe baita hasiera berri honetaz disfrutatzeko modurik onena.



**PINTXOTAN**

## ***Hirugihar-cheddar patata frijituak***



**Zailtasun maila:** Erraza.

**Prezioa:** 5,30 euro.

**Osagaiak:** Patatak, hirugiharra, cheddar saltsa.

Patatak moztuta frijigailuan sartu bebar dira urreztatu arte. Frijituta daudenean, teila gainean botako ditugu eta gatz apur bat botako diegu. Ondoren cheddar saltsa gainetik bota, eta aurretik frijitu dugun hirugiharra zati txikitan botako dugu.

Azkenik, gazta hautsa pixka bat ere bota gainetik eta behatzak miazkatzera! On egin!

## **MADNESS TABERNA**

### **Ordutegia:**

Astelehenetik ostegunera  
8:30etik 22:30era

Asteazkenetan, itxita eguerdian eta arratsaldean

Ostiral eta larunbatetan  
10:00etatik 24:00etara

Igandetan 11:00etatik 22:00etara

**Zalbidea estrata, 5, atzea.**



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tlfno. 94 441 61 46



**ZORROTZA F.C.**  
*kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!*



**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbidea estrata, 5 - atzea  
**ZORROTZA**  
48013 BILBO

**MADNES**

Tel. 94 441 62 75



# Epitafioa, obituarioa ala adierazpen solemnea?

*Denbora aurrera doa*

*zahartzen ari gara.*

*Maitasuna ez dut atzo bezala islatzen.*

**P**ablo Milanesen ‘Años’ abestia hausnarketa malenkoniatsu eta sakona da denboraren joanari buruz eta honek maitasun harremanetan duen eraginari buruz. Isilmandatua dirudien arren, nire maitasuna eta haren isla primeran daude. Baina politikoki motibaziorik ez izateak ezinegona sortzen dit.

Motibazio politikorik ezak ez du zerikusirik adinarekin; are gehiago, adinarekin erradikalizatzen ari naiz. Motibazio politikorik eza nire erreferente politikoa nora ezetik dator. Biratu behar zen transatlantiko hura jitoan dago. Nik honela, gordinkeriarra, laburbiltzen dut: iraultzaile izatetik sozialdemokrata izatera, sozialdemokrata izatetik erreformista izatera.

Askoz hobeto azaldu zuen Joxerra Bustillok GARA egunkarian abenduaren 28an argitaratutako “Expectativas” iritzi artikuluan:

*“Gertatu ohi dena da oposizioko indarrek, gaur egun*



TXETXU ROJO

“ **Isilmandatua dirudien arren, nire maitasuna eta haren isla primeran daude.**

**Baina politikoki**

**motibaziorik ez**

**izateak ezinegona**

**sortzen dit...**

**Botoa emango**

**dut, botoa emango**

**dizuet, noski, botoa**

**ematerakoan ez**

**dut sudurra estalita**

**eramango, baina**

**ilusiorik gabe, gogorik**

**gabe egingo dut**

*EH Bildu den bezala, beren garaipen- itxaropenen hazkundearen aurrean erantzun ohi dutela, zentraltasuna apur bat behartuz. Horrek pragmatismo dosi bat dakar eztabaida politikoa nire nagusiei dagokionez, eta horrek koalizioaren profil ezkertiar garbia desitxuratu dezake.”*

Zentraltasuna, erreformismoa... sinonimoak ote dira?

Gai asko datozkit gogora: Madrilgo diputatuen kongresuan egindako lana, Hezkuntza Legea, Palestinako genozidioa, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren legeak, EAJrekin gobernatzeko alde aurreko jarrera... Nire ustez, gai hauetan zein gainontzeko gaietan zentraltasuna bete dugu, hau da, erreformistak izan gara.

Norbaitek esango du min-gotsa naizela, hobe dela txarra txarrena baino, euskal gizarteak oso ondo baloratzen duela egingakoa, eta hauteskunde autonomikoetarako inkestetan islatzen dela.

Botoa emango dut, botoa emango dizuet, noski, botoa ematerakoan ez dut sudurra estalita eramango, baina ilusiorik gabe, gogorik gabe egingo dut... *“Eraiki ahal izateko harmonia ikaragarri hau, bihotzak zahartzen dituen.”*

**Zure iritzia jakin nahi dugu.** Bidalguzu zure artikulua [zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus)

helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



## TXOKO FEMINISTA



Trans pertsonak eta feminismoan trans aldarrikapenak ere lekua dutela uste dutenek, kezka handiz bizi izan dute Espainiako Berdintasunerako Ministerioari adskribatutako Emakumeen institutuaren zuzendari publikoki trans pertsonen kontra aurkeztu den emakume bat ipintzea. Feminismoaren parte handi batetik bere dimisioa eskatu den arren, hau ez da eman, izendapenari eutsita.

Hala ere, ideia baztertzaile hauek badute

nolabaiteko pisua feminismoaren barnean: feminismo trans baztertzailea deitutako korronteak, feminismoak emakume jaio dena baino ezin duela babestu esaten duelako. Aldiz, ideia hau babesten ez duten korronte feminista desberdinak daude.

Baina, nola izango da feminismoa, generoen arteko berdintasunean oinarritzen dena, generoagatik gizarteak baztertzen duen talde baten baztertzailea? Ez al dugu guztiok lekurik feminismoaren barnean?

IRATZE PÉREZ

## SALAKETA ARGAZKIA

### Ibilgailu astunen azoka?

@ZorrotzaInfo kontuak sare sozialetan ironikoki aipatzen zuenez, okasioko ibilgailu astunen azoka bat dirudien arren, Saderrek goiz batean jasotzen dituen hondakin arrisksutako kamioien kopurua besterik ez da.

Kamioi horiek aparkalekuak eta espazio publikoa okupatzen dituzte etengabe, eta horrek argi uzten du hirigunean hondakin arrisksutak tratatzen dituen fabrikaren lekualdatzean aurrera egin beharrean, Saderren jarduera gero eta handiagoa dela, instalazioak txiki geratzen baitira.

Gainera, hainbat auzo elkarterk salatu dute Bilbon ez dagoela hondakin arrisksutak garraiatzeko ibilgailuen zirkulazioa eta aparkalekua arautzeko araurik. Gasteizen, Iruñean edo Eibarren moduko hirietan ez bezala.



Argazkia: @ZorrotzaInfo



# ZORROTZA HERRIGINTZAN



**ZORROTZAKO BATZOKIA**

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



### Endika

TAO zerbitzua ezarriko nuke, auzoko bizilagunok errazago aparkatu dezagun. Eta supermerkatu bat Zazpi Landan.



### Sara

Metroa. Eta Osasun Zentroko zerbitzuak hobetzea ere ondo legoke.

IRATZE PÉREZ



## Hobetzeko.

Zer falta zaio Zorrotzari?



### Julen

Ez dugu askoz gehiagorik behar, baina Sader kanpoan egon beharko litzateke eta FEVERen lurperaketa eginda egon beharko litzateke



### Iraide

Metroa, dudarik gabe. Eta tokiko merkataritzarentzat sustapen handiagoa: ixten diren denda horiek ez direlako berriro irekitzen.



### Ángel

Fray Juan kalean radar bat ibilgailuen abiadura moteltzeko, eta umeentzako parke berri bat.

**Jai-Alai**  
kafetegia

Albaro estrate, 12  
94 490 12 39

**Lápicos**  
LIBURVDENDA

Untziola kalea, 8  
ZORROTZA

**MESÓN LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
[www.mesonluna.es](http://www.mesonluna.es)



# DARABILBO

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/  
kirol-ekintzak/sukaldaritza/  
ikuskizunak/lehiaketak...

**B**  
**Bilbao**

BILBON AISIALDIA EUSKARAZ



**www.darabilbo.eus**  
**darabilbo@gmail.com**  
**607 530 132**



**iKasi**  
**MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA ZORROZGOTTI ILLU

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75  
📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILLU

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21  
📧 014159aa@hezkuntza.net



ZORROTZA BH

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 428 01 36  
📠 94 428 01 37  
📧 015078aa@hezkuntza.net  
**www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net**

æk  
23.korrika

# HARRO HERRI

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

## 23. KORRIKA ZORROTZAN

MARTXOAK 16, larunbata, KORRIKA KULTURALA EGUNA

- 12:00 IKUSKIZUNA.** Kirikoketa.  
(Sagardoa eta txalaparta uztartzen dituen teknika).  
Azoka parkean. Antolatzailea: Askabide
- 12:00 GAZTE ACTIVE.** Antolatzailea: Gazte Gunea.
- 14:30 BAZKARIA.** (24 €). Azoka parkean.  
Izena aurretik eman behar da euskaltegian. (94 441 49 20 | zorrotza@æk.eus).
- 17:00 ERROMERIA.** IBAI ARTE.
- 19:00 KANTU-POTEOA:** KILOMETRO-KANTU taldea.  
Azoka parketik abiatuta. Antolatzailea: Txinbotarrak konpartsa.

MARTXOAK 21, osteguna. KORRIKA GUREAN!

- 11:30 KORRIKA TXIKIA.** Zazpi Landatik, eskolaz eskola.
- 17:00 TAILERRAK, TXOKOLATADA...** Azoka parkean.  
Antolatzaileak: Zazpi Landa Eskolako Guraso Elkarte eta Jai Batzordea
- 20:12 23. KORRIKA ZORROTZARA HELDUKO DA.**

